

APARTEKO KONTRATAZIO DEIALDIA, ZIENTZIA ETA BERRIKUNTZA MINISTERIOAK UPV/EHUⁿ 2023an "JAKINTZA SORTZEKO PROIEKTUEN" DEIALDIAN EMANDAKO LAGUNTZEI LOTUTAKO IKERTZAILEAK PRESTATZEKO

EMANDAKO ETA UKATUTAKO LAGUNTZEN BEHIN- BEHINEKO EBAZPENA

Ebaluazio-txosten guztiak eta epaimahai ebaluatzaileek egindako esleipen-proposamenak jaso ondoren, Ikerketa Errektoreordetzako Ikerketa Kudeatzeko Zuzendaritzak ERABAKI DU "Emandako eta ukatutako eskaeren behin-behineko zerrenda" web-atarian argitaratzea. Zerrenda hori Eranskinean dago jasota, proiektuaren eta lortutako azken puntuazioaren arabera antolatuta.

Esleituriko batek behin-behinean emandako laguntzari uko egiten diola adierazten badu, proiektuaren barruan ondoren dagoen pertsonarentzat izango da laguntza, lehentasun-ordenaren arabera. **Uko egite horiek 2025eko martxoaren 18a baino lehen aurkeztu beharko dira.** Uko egiteko, pre-postdoc.dgi@ehu.eus helbidera idatzi beharko dute, mezuaren gaian "FPI EXTRA 2024-UKOA " adieraziz.

BEHIN-BEHINEKO ZERRENDAN UKATUTAKO ESKAEREK 10 laneguneko epea izango dute, argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, **alegazioak** aurkezteko (2025eko **martxoaren 25a arte**, egun hori barne). Epe horren barruan, zure eskaerari dagokion ebaluazio-txostena eskatu ahal izango duzu, pre-postdoc.dgi@ehu.eus helbidera idatziz, eta mezuaren gaian "FPI EXTRA 2024-Ebaluazioa" adieraziz.

Alegazioak UPV/EHUko erregistro elektronikoan aurkeztu beharko dira, <https://egoitza.ehu.eus> URL helbidean. Bertan honako hau adierazi beharko da:

"Azaltzen du" atalean: U02000381 FPI 2024 Apartekoa

"Eskatzen du" atalean U02000381_FPI 2024 Apartekoa.

Leioan, 2025eko martxoaren 11an.

IKERKETARAKO GIZA BALIABIDEEN ATALA
Ikerketa Errektoreordetza